




_Cuida2: Filosofiako APS proiektua

Hezkuntza zentroa eta lekua:
Santa Teresa Ikastetxea
Vistahermosa, Alacant

Gauzatze-data:
2020-2021 ikasturtea

Harremanetarako pertsona:
Diana Peirat Mata

Harremanetarako datuak:
dianapeirat@gmail.com

Ikastetxearen testuingurua, hezkuntza-maila
eta ikasleen profila:

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Hezkuntza Berezi eta Integrazioan Laguntzeko ikastetxe pribatu kontzertatu bat gara. Proiektu eleaniztuna daukagu gazteleraz, valentzieraz eta ingelesez. Pedro Povedaren pedagogian inspiratzen gara. Pedagogia horrek:

- Arreta jartzen du pertsonaren heziketan, euren gaitasunen garapenean eta bizitzan Jainkoa aurkitzean.
- Aitortzen du pertsona bakoitza berezia eta berdindgabea dela.

- Hurbiltasunaren pedagogiari eusten dio, afektuaren, aitortzaren, onepenaren, pizgarrien eta konpromisoaren bidez adierazten den maitasunean oinarritzen dena.
- Komunikazioa, elkarriketa eta partaidetza hartzen ditu hezkuntza es-tilotzat.
- Zientziaren ezagutzari fedearen ezagutza eta esperientzia batzen dizkio.

Ikastetxearen testuingurua, hezkuntza-maila eta ikasleen profila

Zein izan zen esperientzia?



_Covid testuinguruan gauzatzen den ApS proiektu bat da, helburu duena berdintasunean eta indarkeria matxisten prebentzioan trebatzea eta hezkuntza-komunitatearen zein gizartearen kontzientzia-sortzaile bihurtzea, horretarako komiki bat sortuz, online hitzaldiak prestatuz eta sare sozialetan eraginez.

Filosofia ikasgaiaren programazioan sartuta dagoen proposamen metodologiko bat da, duela 4 urtetik gauzatzen dudana Batxilergoko I. mailako taldearekin. Helburua da ikasleen konpromiso soziala eta lidergoa sustatzea agente biderkatzaile diren aldetik, errealitatearen analisisan, hausnarketan eta prestakuntzan oinarrituta. Modu horretan, ikasleek gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin batera eta euren ingurunean sensibilizazio ekintzak garatzen dituzte ikasturte bakoitzean InteRedekin landutako premia sozialei buruz (hala nola indarkeria matxisten prebentzioa, genero-berdintasuna, elikadura-burujabetza edota kontsumo arduratsua). Horrela, GGKEaren kanpainak sustatzen dituzte.

Zein zen nire helburua?

_Cuida2ekin herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen ildoan lan egitea zen nire asmoa, InteRedek proposatutako "Toca Igualdad" kanpainaren baitan eta I. Batxilergoko Filosofia ikasgaiaren barruan.

Helburu orokorrak:

- Genero-berdintasunari eta indarkeria matxisten prebentzioari buruz sensibilizatzea.
- Morala, etika, justizia, eskubideak, duintasuna eta askatasuna bezalako kontzeptuei buruz hausnartzea proiekturako edukien ikaskuntzaren bidez.



- Norbere trebetasunak eta gaitasunak hobetzea besteen zerbitzura jarritz.
- Ikasleak engaiatzea eta prozesu osoan zehar modu aktiboan parte hartzea.

Zerbitzuaren helburua:

- Ikastetxeari laguntza erreala eta erabilgarria ematea ikasleen kontzientziazio eta eraldaketa-prozesuan.
- Euren gizarte-inguruneko arazoekin konprometitutako gazteen inplikazio-beharrari erantzutea.

Zer egin nuen eta nola?

Hasieran, InteRedek bere “Toca Igualdad” kanpaina aurkeztu zuen, eta hortik abiatuta hausnartzen hasi ginen ea nola garatu genezakeen ApS bat egungo egoeran. Ikasleek gizartera iristeko bide desberdinak proposatu zituzten eta lan-taldeak osatzen hasi ginen. 2. ebaluazioan zehar hainbat saio eman genituen eduki teorikoetan hezten eta proiektuak diseinatzen. 3. ebaluazioan zehar proiektu horiek martxan jarri genituen.

Zein lorpen izan ditut?

Oso hausnarketa positiboa egon da ikasgelan bertan eta eztabaida asko sortu dira proposatutako gaien inguruan.

Pixkanaka irakasleak parte hartzera animatu dira, baina urte horretan zailagoa izan zen pandemia egoera zela eta. Hizkuntza eta Literaturatik M8ko ekintzetarako laguntza eman genuen.

Alacanteko Udaleko Berdintasun Saitetik gurekin harremanetan jarri ziren proiektuarekiko interesa agertzeko eta laguntzeko. Udaleko lantaldeak ikastetxea bisitatu zuen eta ikasleek proiektua azaldu zieten. Ikasturte amaieran, berriz, talde bat Berdintasun Saileko instalazioetan izan zen zinegotzia elkarrizketatzeko, eta ondoren elkarrizketa hori erabili zuten proiektuaren ebaluaziorako podcasta egiteko.



Zure ustez, eskola-egiturako eta testuinguruko zein elementu izan dira lagungarri edo oztopo zure helburuak lortzeko?

Pandemia-egoera arazoa eta aukera izan da aldi berean. Arazoa da zerbitzua ezin daitekeela horren zuzeneko izan eta alderdi pertsonal hori galtzen dela. Aukera da teknologiaren bidez oso indar eta eragin handiko tresnak sortu direla.

Zein ikasbide eta erronka atera ditut?

Ikasleak gai dira gizartearen agente dinamizatzailerik eta eraldatzaile bihurtzeko euren ikaskuntzan inplikaturik daudenean.

Erronka gisa, inguruko erakunde gehiagorekin kolaboratzea pentsatzen ari gara.

Esperientziaren prestaketan eta gauzatzean parte hartu duten pertsonak edo erakundeak

Hezkuntza-komunitatea:

- Aste solidarioaren dinamizazioan kolaboratzaile den Pastoraltzako arloa.
- Proiektuaren lanketan aholkularitza eta laguntza eskaintzen duten beste ikasgai batzuk.
- Ikastetxeko IGEa; izan ere, beraiei ere eskaini nahi diegu prestakuntza eta kontzientziazio-proiektu hau.
- Alacanteko Udaleko Berdintasun Saila, lehenengo saioen dinamizaziorako materialak eskaini dizkigulako.
- InteRed, proiektuaosatzen eta hedatzen laguntzen baitigu.

Oinarrizko/Erreferentziazko baliabideak edo materialak

InteReden eta Berdintasun Sailaren materialak.

InteReden bideoa zainketak helburu dituen ApSren metodologiari buruz <https://www.youtube.com/watch?v=7luGpRl0M0>